Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4222

2424/2010 EBAZPENA, uztailaren 23koa, Osakidetza–Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Basurtuko Ospitaleko zuzendaritza-kargudunen lanpostuak hutsik, kargudunak kanpoan edota gaixorik daudenerako ordezkapen-erregimena ezartzen duena.

GERTAKARIAK

I.– Basurtuko Ospitaleak kontuan hartu ditu ordezkapen-erregimen berri bat ezartzeko beharra eta egokitasuna hutsaldi, ez-egote edo gaixotasun egoerak gertatzen direnerako. Erregimen horrek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan jasotako araudia osatuko du.

II.– Ordezkapen-erregimen berri bat ezartzeko planteamendu hori sareko beste hainbat zerbitzu-erakundetan egin denarekin bat dator, eta administrazio-kudeaketaren funtzionamenduari laguntzen dio baliozko administrazio-egintzak egiten jarraitzeko.

Eta kontuan izanik ondorengo

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 17. artikuluak hau dio: «Administrazioko organoren batean titularrik ez bada edota kanpoan edo gaixorik badago, aldi baterako ordezkoa jar dezake titularra izendatzeko eskumena duen organoak» (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11.c) artikuluak dioenez zuzendari nagusiari dagokio erakunde publikoko osasun-zerbitzuetako zuzendari gerenteak izendatzea eta kargutik kentzea, eta zuzendari gerente bakoitzaren proposamenez, aipaturiko zerbitzu-erakundeetako gainerako kargudunak izendatzea eta kargutik kentzea.

Aurreko oinarrian adierazitako irizpideari jarraituz, artikulu horretatik ondorioztatzen da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiak eskumena duela berak izendatutako zuzendaritza-kargudunen ordezkapenak egiteko araubidea ezartzeko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

4222

RESOLUCIÓN 2424/2010, de 23 de julio, del Director General de Osakidetza–Servicio Vasco de Salud, por la que se establece el régimen de suplencia en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de los cargos directivos del Hospital de Basurto.

HECHOS

I.– Desde el Hospital de Basurto de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud se ha valorado la necesidad y decidido la conveniencia del establecimiento de un nuevo régimen de suplencia en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad que complemente la regulación contenida en el Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

II.– El planteamiento que antecede de establecer un nuevo régimen de suplencia es acorde con la práctica seguida en otras organizaciones de servicios de la red, y contribuye a un mejor funcionamiento de la gestión administrativa por continuidad en la producción de actos administrativos válidos.

Y de conformidad con los siguientes

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– El artículo 17 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que contempla la posibilidad de que los titulares de los órganos administrativos podrán ser suplidos temporalmente en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad por quien designe el órgano competente para el nombramiento de aquéllos.

Segundo.– El artículo 11.c) del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza–Servicio Vasco de Salud, a cuyo tenor le corresponderá al Director General Nombrar y separar a los Directores Gerentes de las organizaciones de servicios sanitarios del Ente Público y, a propuesta del Director Gerente respectivo, nombrar y separar al resto de los cargos directivos de dichas organizaciones de servicios.

De dicho artículo se infiere, en aplicación del criterio enunciado en el Fundamento anterior, la competencia del Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud para el establecimiento del régimen de suplencia de cargos directivos por él nombrados.

Azaldutako guztiagatik, legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hutsaldi, ez-egote edo gaixotasun egoerarik bada, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Basurtuko Ospitaleko zuzendari gerentearen karguari dagokion ordezkapen-erregimena ezartzea.

Kargu hauek betetzen dituztenak izango dira zuzendari gerentearen ordezko, hurrenkera honi jarraituta:

– Zuzendaritza Medikoa.

– Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza.

– Pertsonal Zuzendaritza.

– Erizaintza Zuzendaritza.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea eta eragiten dien kargudunei jakinaraztea, horren berri izateko eta dagozkion ondorioetarako.

Hirugarrena.– Ebazpen hau behin betikoa da, eta argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak. Indargabetuta uzten du gai honi dagokionez Basurtuko Ospitalerako lehenago emandako beste edozein ebazpen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 23a.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

Por todo lo expuesto y de acuerdo con las facultades que legalmente me han sido atribuidas,

RESUELVO:

Primero.– Establecer el régimen de suplencia en supuestos de vacante, ausencia o enfermedad del Director Gerente del Hospital de Basurto de Osakidetza–Servicio Vasco de Salud.

La suplencia del Director Gerente recaerá en los siguientes cargos por el orden en que se enumeran:

– Dirección Médica.

– Dirección Económico-Financiera.

– Dirección de Personal.

– Dirección de Enfermería.

Segundo.– Publicar la presente Resolución en el BOPV y notificarla a los cargos afectados por la misma para su conocimiento y efectos oportunos.

Tercero.– La presente Resolución, que es definitiva, producirá efectos desde la fecha de su publicación y anula cualquiera anterior sobre la material dictada para el Hospital de Basurto.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 2010.

El Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud,
JULIÁN PÉREZ GIL.